

/ Nabarmentzekoak

- > Getxok "Bizkaiko Saltokiak Bost Zentzumenekin" jardunaldia hartuko du (2. or.)
- > Portu Zaharreko jaietarako kartel lehiaketa (3. or.)
- > Getxo Iristaneko estreinatu berri den senior taldeak irabazi du patin hockeyko Euskadi Kopa (4. or.)

* Unai Aranzadiren "Desterradas" dokumentala sarituta Madrilgo Zinema eta Giza Eskubideen Zinemaldian (4. or.)



Kontzertua. Maitzaren 31n, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, Oihana Rodriguez "Akaleia" k bere diskoa *Ondoloin* aurkeztuko du. 6€.

A-
GENDA

Antzerkia. Ekainaren 1ean, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Maquiavelo", Proyecto Cultura & Festival de Teatro Clásico de Cáceres taldeekin. 12€.

Obraren kostuaren zati bat Aurrekontu Parte-hartzaileen testuinguruan finantzatu da

Bolueko eta Gobelako futbol-zelaiak eta Fadurako erabilera anitzeko zelaia berritzeko lanak egiten hasi dira

Getxo Kirolak-ek Bolue eta Gobelako futbol-zelaietako eta Fadurako erabilera anitzeko zelaiko belar artifiziala berrituko du datorren astetik aurrera. Kontuan izanik lehiaketa-denboraldia amaitzear dela, Getxoko Udaleko kirol-erakundeak udako hilabeteetan egingo ditu berrikuntza-lan horiek, eta ia 1,5 milioi euroko kostua izango dute. Modu horretan, zelai horietan 11 futbol-klubetan multzokaturako 1.700 kirolari entrenatzen eta lehiatzen direnez, berritzeko obra hori amaituta izango da datorren denboraldia abian jarri aurretik.

Punta-puntako belar artifiziala jar-tzeaz gain, Fadurako erabilera anitzeko zelaian ureztatze-kanoiak, errugbiko zutoinak eta beisbolera jokatzeko behar den egokitzapena



instalatu dira. Halaber, Bolue 1 eta 2ko zelaietan ere ureztatze kanoi berriak instalatu dira eta Bolue 3an daudenak berritu egingo dira. Era berean, obrerako hila-bete horietan, Bolueko zelaietako aldagelak handituko dira. Bolue 1 eta 2ko zelaiak dagokienez, 4 alda-

gela berri, botika-kutxarako gune bat eta komunak berrituko dira; Bolue 3an, berriz, lehendik dauden aldagelak handituko dira.

Obraren kostuaren zati bat (550.000 euro) Udalak finantzatu du Gobernu Irekiaren eta Moderniza-

zioaren Arloak sustatzen dituen Aurrekontu Parte-hartzaileen testuinguruan. Zehazki, eta ia herritarrek egindako bozketaren emaitza moduan, zenbateko hori erabiliko da Bolue 1 eta 2ko aldagelak eraberritzeko eta Bolue 1eko zelaietako belar artifiziala berritzeko.

Getxo Rugby Estatuko elitera itzuliko da

Azken denboraldietan hainbat saiakera egin ondoren, Getxo Rugby taldeko emakumezko seniorra estatuko errugbiko elitera itzuliko da, Ohorezko A Mailara. Klubaren 50. urteurrenean Iberdrola Ligan arituko dira Estatuko talde onenekin batera. Duela 6 urtetik ez zen horrelakorik gertatzen. Horregatik, igoera bat ospatzeko gogoia zegoen, eta oraingoan ametsa egia bihurtu zen joan den igandean, hilak 19, Faduran, Cisnerosen aurkako finala oso lis-kartsua izan bazen ere, bigarren zatian bakarrik nagusitu baitzen (27-12).

Eta azken txistuarekin pozak gainezka egin zuen Faduran: jokalarien malkoak, Aitor Etxebarria entrenatzailearen eta gizonezkoen lehen taldeko mutilen emozioa, ez baitzuten galdu nahi izan emaku-



Foto: @fredymonfoto

mezkoen igoera eta Ohorezko B Mailako txapeldunen izendapena (denboraldia garaituak izan gabe amaitzen). Gainera, igandean agur esan zioten Barbara Plari

talde getxotarrarekin jokatu zuen azken partidaren. Kataluniatik etorritako jokalariek denboraldi asko egin ditu Getxo Rugby taldean, eta, beraz, talde barruko getxotar

bat bihurtu da. Eta ez dago agur hoberik taldea estatuko errugbi maila gorenera itzultzea baino.

Zorionak, talde!



MAIATZAK 23 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Cesc Gayren "Sentimental" pelikularen proiektzioa. 16 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

Zurumurrurik ez ipuin-kontaketa. 17:00etan, Romo Kultur Etxean, Ridouane Chakouch eta Rakel Imazekin (Agharas, Bizkaiko Imazighen elkarte). Euskaraz, gaztelera eta arabieraz

MAIATZAK 24 OSTIRALA

Zine kluba. 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Park Cha-Wook-en "Decision to leave" pelikularen proiektzioa. 12 urtetik aurrera. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50€.

Parkean Olgetan. 18:30ean, Romoko Santa Eugenia plazan jolas-teko dinamikak 3 urtetik gorako umeentzat. Doan. Informazioa eta izenematea: www.egizu.eus

Kontzertua. 20:00etan, Punta Begoña Galerietan, McEnroeren emanaldia, BBK BILBAO Music Legends Fest jaialdiko "Warming Up" atalaren barruan. Sarrerak agortuta

MAIATZAK 25 LARUNBATA

Kontzertua. Getxo Eszena Kalean. 18:30ean, "Sokairera bidai" (euskaraz) Sokaire biolinistak taldearekin, Areetako Geltokia plazan. Adin guztiak. Sarrera dohainik.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Las que limpian" A Panadaria konpainiarekin (gaztelera). Sarrera: 12€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Mónica Matabuenak "Matabuenapura" aurkeztuko du MAJAZZ 2024 jazz zikloaren barruan. Sarrera: 5€

MAIATZAK 26 IGANDEA

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Josee, el tigre y los peces" (gaztelera). Adin guztiak. Sarrera: 2,50€.

Haur zinema. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Mironins" (euskaraz). Sarrera: 2,50€. Adin guztiak.

Ibilaldia 2024: Bizkaiko ikastolen aldeko jai, San Nikolas ikastola antolatuta. <https://labur.eus/02X5T>

MAIATZAK 29 ASTEAZKENA

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Karmelo C. Iribarren obrari buruz.

Hitzaldia. 19:00etan, Urgul Zentroan, "Retos complejos de la Unión Europea". Hizlaria: Gorka Espiau (Agirre Lehendakaria Center ikasketa sozial eta politikoen zentro-

ko zuzendaria). Antolatzailea: EurGetxo <https://eurgetxo.wordpress.com/>

MAIATZAK 30 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Carla Subiranaren "Sica" pelikularen proiektzioa AJBn. 3,50€. 7 urtetik aurrera.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte Kultur Etxean. Solasaldia "Amek ez dute" liburuari buruz, Katixa Agirre idazlearekin. Doan. Egizu elkarteak antolatuta. Izen emateko: 619 935 541.

MAIATZAK 31 OSTIRALA

Zine kluba. 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Tran Anh Hung-en "A fuego lento" pelikularen proiektzioa. 7 urtetik aurrera. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Oihana Rodriguez "Akaleia" bere diskoa Ondoloin aurkeztuko du. Sarrera: 6€.

Kontzertua. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Trio Maderas Dánae" hirukotearen kontzertua (Musikeneko Interpretazio Masterreko ikasleak). Sarrera doan.

EKAINAK 1 LARUNBATA

Liburu-aurkezpena. 11:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "La pista del sestericio" liburuaren aurkezpena Fidel Leza Aizpiri egilearekin.

Zirkoa. Getxo Eszena kalean. 18:30ean, Areetako Geltokiko plazan, "Harreman" ikuskizuna Zirkoaurrekin. Adin guztiak. Sarrera dohainik.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Erosle parrokian, "Clamare" UPV-EHUKO abesbatzarekin. Parrokiaren 50. urteurrenean egindako zikloaren azken kontzertua.

Dantza plaza. Denboraldiaren amaiera. 19:00etan, San Nikolas plazan, erromeria bertoko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Maquiavelo" (gaztelera) Proyecto Cultura & Festival de Teatro Clásico de Cáceres taldeekin. Sarrera: 12€.

Kontzertua. 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokian, Amelia Rodríguez (soprano) eta Pedro Guallar (órgano) bikotearen emanaldia. Sarrera dohainik. Antolatzailea: AMOMA-Merklin Organoko Lagunen Elkarte.

EKAINAK 2 IGANDEA

Kontzertua. 13:30ean, "Kristalezko Kioskoa" zikloaren barruan, "Micky & The Buzz" taldearen emanaldia. Sarrera dohainik.

Haurrentzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Onin y el misterio del teatro". Sarrera: 6€.

Antzerkia. "Mujeres en escena" zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Zapatos rotos". Sarrera: 3€.

- **Lan bila** nabil (edadetuak zaintzeko, etxeak garbitzeko...) barneko, eguneko edo orduka. Tel.: 642795276.

- **Ingelesa.** Irakasleak ikasturte amaierako azterketak gainditzeko laguntzen du. Deskontuak Gazte txartelarekin. Romo. Tel: 687 00 06 50.

- **Andrazkoa lan bila** dabil etxeko lanetan. Eguneko edo orduka arratsalde. Esperientziaduna. Tel.: 619 36 34 21.



- **Logela salgai,** Leioako ebanista ezagun baten marketeriaz eginda. 1,50 m-ko burualdea, bi mesanotxe eta hiru tiradera komoda zabala. Egoera onean. Prezio beharatu: 600€. Tfnoa. 661 962 940.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauriaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Adierazpen instituzionala LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Egunean

Maiatzaren 17an LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Udaleko Bozeramaleen Batzordeak adierazpen instituzional bat onartu zuen aho batez. Bertan, Udalak, beste gai batzuen artean, sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatzeko politikak garatzeko konpromisoa berretsi du. Gainera, ekinean jarraituko du pertsona guztien eskubi-deak defendatzeko, eta sustatuko dituen politika publikoetan bilatuko du pertsonak babestea eta diskriminazioaren kontrako neurriak abian jartzea, uste duelako "gizartearen aniztasuna gure indarra da, bai eta defendatu eta babestu

behar dugun balorea ere". Adierazpen osoa: <https://labur.eus/pmTvn>

Gaitzespena jaietan eraso lesbofobo baten ondoren

Hain zuzen ere, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko tokiko protokoloa aktibatu zuen Udalak pasa den astean, Andra Mari auzoko jaietan maiatzaren 12an, igande goizaldean, emakume gazte batek jandako eraso lesbofoboaren ondoren. Horren aurrean, Udalak adierazi zuen indarkeria matxista giza eskubi-deen urraketa dela, eta batez ere emakumeei eragiten die-

ten genero-desberdintasunen adierazpenik larriena dela, bai eta sexu-orientazioagatik, identitateagatik edo genero-adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioak jasaten dituzten pertsona guztiei eragiten diena ere. Era berean, beste emakume batzuekin afektiboki eta sexualki erlazionatzen diren emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak arbuiatu zituen eta biktimari elkartasuna eta babesa agertu zizkion. Edozein eraso LGTBIfobikoarekiko tolerantzia zero agertu zuen Udalak eta gogoratu zuen emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako erasoek errobera dutela: matxismoa.

Erakusleioek bizia hartuko dute

Ekainaren 6tik 15era Getxoko erakusleioek bizia hartuko dute berriro. Iazko arrakastaren ondoren, GetxoEnpresa elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Getxoko hainbat negoziotan antzeztutako emanaldiak eta antzezpeneak berriro antolatzea erabaki du, oinezkoen arreta erakartzeko, jarduera ekonomikoa sustatuz eta bultzatuz.

5 minutuko bi koreografia egingo dira lokal bakoitzean, bi asteetako ostegun, ostiral eta larunbatetan.

Citypaq 24 orduz Algortako Postetxean

Correosek Citypaq zerbitzua jarri du bere bulegoan, Algortako Torrene kaleko 6an, aste-ko egun guztietan erabilgarri. Erosketak Internet bidez bidaltzeko, jasotzeko eta itzultzeko autozerbitzuen terminal bat da. Abantaila nagusia da hartzaileak aukeratzeko duela noiz datorkion hobeto jasotzera edo bidaltzera joatea, eta bere egoerara egokitzen da erosketa bat Internet bidez jasotzea edo itzultzea, merkataritza elektronikoa baita pakete gehien sortzen dituen jardura.

Bost egun daude paketeak jasotzeko eta 18 hutsune daude guztira.



Getxok "Bizkaiko Saltokiak Bost Zentzumenekin" jardunaldia hartuko du

Maiatzaren 30etik ekainaren 1era, *Bizkaiko Saltokiak Bost Zentzumenekin* tokiko merkataritza sustatzeko jardunaldien hirugarren edizioa izango da Getxo Elkartegian. Bizkaiko merkataritzaren patronalak (CECOBI) antolatutako ekimena da, honako hauekin lankidetzan: Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Rural Kutxa eta Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapen Saila, baita Algortako Dendak eta Romo Bizirik elkar-teak ere.

Udalerriko 60 saltoki inguruk hartuko dute parte, sektore guztietakoek, eta beren produktuak herritarrei irekitako gune batean erakutsiko dituzte, hurbileko merkataritzaren garrantziaz kontzientziatzeko helburuz.

Topaketa honek bultzatuko du jendea elkarreraginean jartzea eta dendetara joatean

aurkitzen diren sentsazio ohikoenetako batzuk eza-gutzea, hala nola dastatzea, eskuez sentitzea edo saltokiaren soinuak entzutea. Aurten, berrikuntza gisa, haurrentzako tailerrak izango dira ostiral arratsaldean eta larunbat osoan. Gainera, txikienek lasaitasunez gozatzeko gune bat prestatuko da, helduek beste esperientzia batzuek gozaten duten bitartean. Azkenik, opariak eta ustekabeak banatuko dira erakusketara joaten direnen artean, eskertzeko bai bisitaldia, bai bertako merkataritzari emandako laguntza.

Bizkaiko Saltokiak Bost Zentzumenekin ekimena zabalik egongo da larunbatera arte, ekainak 1, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era.

Parte hartzen duten saltokien zerrenda osoa hemen kontsulta daiteke: <http://www.comercio5sentidos.eus>

Portu Zaharreko jaietarako kartel lehiaketa

Portu Zaharreko jai batzordeak aurtengo jaiak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du. Datorren asteartea arte, ekainaren 4a arte, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) 50x70cm-ko (edo 70x50cm-ko) kartelak entregatu ahal izango dira, Portu Zaharreko Jaiak 2024 testua eramateko: "Abuztua 9-12".

Kartelaren atzealdean izengoiti bat jarriko da, eta hori ere gutun-azal itxi baten kanpoaldean jarriko da. Barruan izen-abizena, posta helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa agertuko dira. Eskatutako neurrietan egindako edo inprimatutako kartelaz gain, euskarri informatikoa ere aurkeztuko da, kartela eskuz egin dute-nek izan ezik.

Jai-batzordeko kideek eta tokiko artistek osatutako epaimahaiak sei kartel aukeratuko ditu, eta horien artean 1. saria (400 euro) eta 2. saria (150 euro) aterako dira herri-bozketan, ekainaren 6an, ostegunean, 12:00etatik 20:00etara, Portu Zaharrean bertan. 21:00etan emango da ezagutzera kartel irabazlea. Ondoren, parte hartzeko sarien zozketa egingo da (bi lagunentzako bi bazkari edo afari, Portu Zaharreko jatetxe batean) saririk jaso ez duten gainerako kartelen artean. Batzordeak irudiak osorik edo zati batean erabiltzeko eskubidea izango du. Informazio gehiago: portuzaharra.kartelak@gmail.com.

ARGIBIDEA

Getxoberriren azken alean ulertu ahal izan zen argazki batean Joseba Santxorekin (Barrikako Udalak antolatutako

Mikro-ipuinen Lehiaketaren euskarazko irabazlea) batera agertzen zen emakumea Eva Susana Biggi (gaztelarazko irabazlea) zela, bera ez zenean. Oraingo argazkian hiru irabazle agertzen dira. Aipatutakoa Susana izenaren orde, Eva Biggi izenarekin ezagunagoa dena Algortako Kultur Gelako Idazketa Tailerreko partaide beteranoa da, eta bere lanak hainbat aldiz sarituak izan dira, Joseba Santxorenak bezala.



"Las que limpian", pisu-zerbitzarien borroka

Galiziako A Panadaria antzerki konpainiak *Las que limpian*, hoteletako pisu-zerbitzarien borroka-ri buruz Zentro Dramatiko Nazionalarekin batera ekoiztutako muntaia taularatuko du larunbat honetan, hilak 25, Muxikebarrin. Emanaldia 20:00etan hasiko da

eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Obrak prekaritateaz, abusuz eta esplotazioaz hitz egiten du. Satira utopiko bat da, hoteletako pisu-zerbitzarien borroka antolatuan inspiratua, eskubide laboral eta

sozial bidezkoak lortzeko. Iku-sezinek garbitzen eta kargatzen dute atzean sistema turistiko prekarizatzaile baten pisua. Haien aurrean, hotel-kateen jabeen dirugosea. "Batziek ez dute inoiz water bat garbitu; beste batziek, ordea, hilean bostehun garbitzen dituzte".

"Getxoarte" egonaldi-beken beste edizio bat

Uztailaren 15era arte zabalik egongo da "Getxoarte" Egoitza Beken beste edizio bat, Kultur Etxetik bultzatutako ekimena, ikerketa eta ekoizpen artistiko garaikidea sustatzeko, sortzaile, profesional

eta herritarren arteko elkarrekin-tza errazteaz gain. Deialdiaren bosgarren edizio honetan hiru beka emango dira, eta beka bakoitza 5.000 eurokoa izango da. Ekimena praktika garaikideen lan eta

proiektu argitaragabeetara irekita dago, eta horien garapenean bitartekotza-prozesuak txertatu behar dira. Deialdiaren oinarriak helbide honetan kontsulta daitezke: www.getxo.eus/kulturadeialdiak

Mónica Matabuenak MAJAZZ zikloa itxiko du

Mónica Matabuena musikagile eta kantari getxotarraren kontzertu batek emango dio amaiera larunbat honetan, maiatzak 25, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan antolatutako MAJAZZ jazz zikloari. Emanaldian *Matabuenapura*, bere lehen diskoa, aurkeztuko du. 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5



euro balio du.

Mónica Matabuena Marco Martínez gitarran, Fran Gayo baterian eta Ander García kontrabaxuan izango ditu lagun. Bere konposizioak eta moldaketak interpretatuko ditu, jazz garaikidean inspiratutako estetikarekin.

"Sokairera bidaia", ibilbidea musika klasikotik

Sokaire biolinista bikoteak kontzertua eskainiko du larunbatean, maiatzak 25, 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, Kultur Etxearen *Getxo Eszena Kalean* zikloaren barruan.

Sokairera bidaia euskarazko ikuskizunarekin, Itxaso Díezek eta Noemi Santamariak musika klasikoaren garai ezberdinetan murgilduko gaituzte, Barrokotik hasi eta gaur egunera arte. Beren instrumentu akustiko eta elektrikoekin batera, esperientzia pertsonalez betetako ibilbide ezohiko batetik eramango gaituzte, umore ukitu batekin. Ikuskizun berezi honetan euren erreperorioa joko dute loop eta oinarri elektronikoen lagunduta.



Abesbatzaren sorrera 1999an

Zozoak Abesbatzak 25 urte bete ditu


Zozoak Abesbatzak Zilarrezko Ezteiak ospatuko ditu aurten eta Mundakako Abesbatzarekin batera, larunbatean, hilak 25, 19:00etan, Romoko San Jose elizan eskainiko duen kontzertuarekin hasiko da ospatzen. Koroa 1999an sortu zen Abeslari Lagunen Abesbatza izenarekin eta 2013an gaur egungo izena hartu zuen. Oraindik hurrengo zazpi sortzailek abesten dute: Roberto Rozas, Bernardete Muñoz, Paki Bolaños, Juan Luis Elordui, Blanca Rodriguez, M^a Elena Fierro eta M^a Luisa Azkue. Zozoak taldearen helburu nagusia musika-irakaskuntza lantzen, eta herri eta kultura desberdinen arteko lotura gisa zabaltzen jarraitzea da. 36 ahots mistok osatzen dute, BAEren parte da eta bere erreperorioak musika polifoniko-koralaren barietate osoa biltzen du. Taldea atzerrian (Frantzia, Italia, Portugalen...) eta estatuan aritu da, Santo Domingo de la Calzadan ospatutako Gabon Kantu XIX. Lehiaketa Nazionalen lortutako lehen saria nabarmenduz.

Unai Aranzadi getxotarraren “Desterradas” dokumentala sarituta Madrilgo Zinema eta Giza Eskubideen Zinemaldian

Unai Aranzadi, Getxoko kazetari, argazkilaria eta Independent Docs ekoiztetxearen sortzaile eta zuzendari getxotarraren *Desterradas* dokumentalak film onenaren saria jaso du Madrilgo Zinema eta Giza Eskubideen VIII. Zinemaldian. Lan horrek beren lurra galdu duten edo inoiz izan ez duten munduko pertsonen istorioa kontatzen du.

Soldepaz Pachakutiren eskutik (Gijongo Udalaren laguntzarekin, besteak beste), 28 minutuko iraupena duen dokumentalak Brasil, Japonia, Kolonbia, Kosovo, R.D. Congo, Honduras, Mozambike, Filipinak, Palestina eta Espainian erbesteratutako pertsonen aurpegia eta nortasuna ematen dizkieten erretratuak erakusten ditu. Hamarkada bateko epean Aranzadik mundu garatutik urrun dauden eskualdeetan hartu ditu irudi horiek, telefono-seinalerik eta asfalto-seinalerik gabeko eremuetan, eta nabarmendu du *“toki horietatik energia-baliabideak, elikagaiak edo mineral merkeak jasotzea espero dugu, haien jatorria, historia eta ustiapenaren eragina kontuan hartu gabe”*.

Aranzadiren lanen artean, *A costa dos Lançados* eta *Jambo Amani?* izenburuko dokumentalak daude, UN Etxeak ekoiztuta, Udalaren finantzazioarekin.



2030 Eskola Agendaren aldarrikapena mugikortasun jasangarriagoaren eta bidegorri gehiagoren alde

2030 Eskola Agendan parte hartzen duten ikasleek jai-aldarrikapen jardunaldi batean parte hartu zuten aurreko ostegunean, hilak 16, bizikletaz eta oinez. 600 ikasle inguru bildu ziren San Inazio plazan, udaltxearen ondoan, eta bertan manifestu bat irakurri zuten mugikortasun eredu jasangarriagoa, inklusiboagoa eta irisgarriagoa sustatzea eskatzeko, baita bidegorri gehiago ere, ikastetxetara bizikletaz iristeko

aukera izate aldera. Amaia Aguirre alkateak entzun zien eta eskerrak eman zizkien 2030 Eskola Agendan egiten den lanagatik. Agenda horretan udalerriko 10 ikastetxek hartzen dute parte.

Jardunaldiak bertsoak eta batukada izan zituen, eta Algortako Portu Zaharrean amaitu zen. Han ikasleek prestatutako bi ikuskizun taularatu zituzten. *Erabili bizikleta planeta zaintzeko!* izan zen jardunaldiaren leloa.



Getxo Irristaneko estreinatu berri den senior taldeak irabazi du patin hockeyko Euskadi Kopa

Getxo Irristan patin hockeyko klubeko gizonen taldeak, Senior mailan Ipar Ligan lehiatzen denak, Euskadi Kopa irabazi du, Euskadiko Patinaje Federazioak emana eta joan den maiatzaren 17an eta 18an, Gorostizako kiroldegian. Talde getxotarra berdinketan egon zen partidako azken segundotara arte eta, luzapena iragarrita zegoenean, Gonzalo Lekerikaren (Leke) ustekabeko gola iritsi zen, eta 6-5

irabazi zuen. Meritua ukazina da, taldeak aurten ekin baitzuen bere ibilbideari eta ez baitzuen aurretiko esperientziarik. *“Talde berri bat irteten den lehen denboraldian titulu bat izatea guztiz ezohikoa eta ustekabekoa da, eta Getxo osoarekin partekatuta nahi dugu. Titulurako ilusioaz gain, klubeko gazte asko animatzeko eta talde bakar bat egin elkarrekin titulua ospatzen animatzeko, oso hunkigarria izan zen”*, klubetik adierazi dutenez.



Gazteriak txangoa antolatu du Mendexa Abentura Parkera

Udaleko Gazteria Zerbitzuak Mendexa Abentura Parkera txangoa antolatu du ekainaren 8rako.

11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduera honek naturaz beteriko basoaz gozatzeko aukera emango die. Guztira, 78 erronka eta 23 tirolina dituzten 6 zirkuitu ditu, zuhaitzez zuhaitz tirolinetan, tibetar zubietan eta eskaletan ibiltzeko aukera ematen dutenak.

Interesdunek datorren ekainaren 2ra arte izango dute aukera heuren izen-ematea formalizatzeko, bi Gazteleketan:

- **Guregune** gaztelekua (Romo). Santa Eugenia plaza, 1. Tel: 635 70 65 26 eta posta elektronikoa: guregunegaztelekua@getxo.eus

- **Gaugun** gaztelekua (Algorta). Urgul kalea z/g. Tel: 688 84 03 56 eta posta elektronikoa: gaugun-gaztelekua@getxo.eus